# FORO ERREGULARRA ERATZEKO PROZESUA – GIZARTE ZIBILA

## 1. ZER DA FORO ERREGULAR BAT?

Gobernu-**agenteek** eta gobernuz kanpokoek osatutako foro bat da foro erregularra. Aldizka batzartzen da, Ekintza Planaren diseinua eta ezarpena gainbegiratzeko eta koordinatzeko. Foro erregularra mekanismo garrantzitsu bat da OGPren printzipioa praktikan jartzeko, hau da, gobernuak eta gizarte zibilak elkarrekin sortzeko.

OGP prozesua gainbegiratzeko eratutako foroa da. Erregulartasunez biltzen da (gutxienez, lau hilean behin), aurrez aurre edo ez.

**Zergatik sortu FORO ERREGULAR bat?**

Foro erregularrak bermatuko du OGP prozesua hainbat **agenteren** partaidetzaren eta gidaritzaren onuraz baliatzen dela. OGP prozesu bat foro erregular baten bitartez kudeatzeak onura asko ekar ditzake; besteak beste:

I. Ideia, sare eta iturri berrietarako sarbidea izatea.
II. Lankidetza-harremanak eraikitzea eta elkar ulertzeko bideak ezartzea.

**Zer zeregin du foro erregularrak?**

Foro erregularreko kideek elkarrekin ezarriko dituzte beren konpromisoak, parte hartzeko modua eta gobernatzeko sistema (adibidez, bileren maiztasuna, nork ezartzen duen agenda, erabakiak nola hartu, auziak nola konpondu, akten zehaztasun-maila eta nork duen erabakitzeko aginpidea). Horiek guztiak OGPren webgunean argitaratzen dira.

**Irismena eta konpromisoa:** Foro erregularrak ez du izan behar gobernu-agenteek eta gobernuz kanpokoek parte hartzeko bide bakarra. Foro erregularrak jardueren irismena eta konpromisoa ezartzen ditu, eta horiek agente garrantzitsuenei helarazten dizkie (herritarrei, gizarte zibilari, erakundeei, gobernu-sailei, legebiltzarrari, hezkuntza-sistemari, sektore pribatuari, eta abarri), OGP prozesuaren aurrerabideari buruzko informazioa emateko.

**Erabakiak hartzea:** Foro erregularrak aginpide- eta erantzukizun-maila desberdinak izan ditzake erabakiak hartzerakoan.

**Gainbegiratzea eta ikaskuntza:** OGP prozesua oso konplexua eta dinamikoa izan daiteke. Hainbat agentek parte har dezakete, eta horren araberakoa izango da arrakasta, ikuspegi desberdinak nola jorratzen diren kontuan hartuta. Foro erregularrak gidatu eta gainbegiratu behar du prozesua.

**Txostenak:** Foro erregularrak gainbegiratu behar du Ekintza Planaren txostenen aurrerabidea.

## 2. NORK PARTE HARTU BEHAR DU FORO ERREGULARREAN?

Foro erregularraren osaera elkarrekin erabaki behar dute OGP prozesuan parte hartzen duten agente guztiek. Gainera, ordezkaritza orekatua egon behar da gobernu-ordezkarien eta gobernuz kanpokoen artean.

Foro erregularrak goi-mailako gobernu-ordezkariak izan behar ditu, erabakitzeko ahalmena dutenak, foroa behar hainbat ahaldunduta egon dadin.

Foro erregularreko gobernuz kanpoko kideak prozesu zuzen eta garden baten bidez hautatzen dira. Foro erregularreko arauek aukera eman behar diete gobernuz kanpoko agenteei beren hautatze-sistema propioa ezar dezaten.

Foroa sendo ezarrita egon behar da, baina malgua ere izan behar da, gobernuetan eta gizarte zibilean gertatzen diren aldaketetara egokitu ahal izateko. Aldaketak, gertatuz gero, segurtatzeko, foroko kideek hau egin dezakete:

- Foroaren bilera eta jarduera guztiak dokumentatu.
- Lehendakariordetza bat eta ordezkoak ezarri, aldaketak gertatzen direnerako.
- Kideen artean txandakatze-politika bat ezarri, beharrezkoa iritziz gero.
- Kide berriei ongi etorria emateko eta sarrera errazteko materiala prestatu.
- Hainbat lotura ezarri, Ekintza Plana ezartzearekin lotutako informazioaren fluxua errazteko.
- Akordioak lortu, aldaketa politikoak gertatzen direnean elkarrizketarekin jarraitzen dela bermatzeko.

**Euskal Autonomia Erkidegoan, Euskadirako Gobernu Irekirako Ekintza Planerako foro erregularra osatzen duten erakunde publikoak zortzi dira:** Eusko Jaurlaritza, AFA, BFA, GFA, Bilboko Udala, Donostiako Udala, Gasteizko Udala eta Eudel. Guztiak, Eudel izan ezik, Hautagaitzaren Talde Eragileko parte dira.

**Horrenbestez**, foro erregularrean parte hartzen duten gizarte zibileko erakunde edo pertsonen ordezkari-kopurua eta erakunde publikoena berdina izan behar denez, **zortzi pertsona/erakunde dira foro erregularra osatu dezaketenak**, Ekintza Plana garatzean eta hura hedatu eta haren jarraipena egitean **herritarren ikuspegia sartzeko**.

Hautagaitzaren talde eragileko kideetako bat Innobasque izan denez, foro erregularreko kidea izango da (lehen aipatutako zazpi erakunde publikoak bezala). Hori dela eta, **7 plaza erabaki behar dira AUTOAUKERAKETAN oinarrituko den prozesu batean. Hala, interesa duten erakunde eta pertsonek erabaki beharko dute formularik egokiena foro erregularraren osaera zehazteko.**

## 3. GIZARTE ZIBILAK FORO ERREGULARRA ERATZEKO PROZESUA

Gizarte zibilak foro erregularra eratzeko prozesuak hainbat fase izan ditu. Hona hemen horiek laburbiltzen dituen diagrama:




Hurrengo orrietan aurkeztuko dira prozesuaren zehaztasunak, faseka.

### 1. FASEA - MARTXAN JARTZEA



Talde sustatzaileak **90 gonbidapenetik gora** igorri zizkien erakunde eta pertsonei, foro erregularrean parte har zezaten, **aniztasunaren eta lurraldetasunaren irizpideei jarraikiz**:

- **Lurraldetasuna**, Euskal Autonomia Erkidegoan, lurralde historikoetan edo/eta udalerri-mailan lan egiten duten agenteen lankidetza sustatuta.
- **Aniztasuna**, ekintza-planean sar daitezen honako ikuspegi hauek: adina, generoa, migrazioa, hiriaren eta landaren arteko harremana, hiritartasuna (antolatua, ez antolatua, aditua, auzotasuna), eta arlo publikoaren eta pribatuaren arteko harremana.

Horretarako, oinarri hau izan zen abiapuntua, eta, bertan, talde sustatzaileko agente bakoitzak hainbat agente proposatu zituen (***ikus 1. eranskina*** – *Talde sustatzaileak proposatutako pertsonen / erakundeen zerrenda*):

| | EDAD | | GÉNERO | | | | CIUDADANÍA | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | *JÓVENES* | *MAYORES* | *MUJERES* | DISCAPACIDAD | INMIGRACIÓN | RURAL/URBANA | *ORGANIZADA* | *NO ORGANIZADA* | *EXPERTA* | *VECINDAD* | PÚBLICO/PRIVADO |
| ALAVA | | | | | | | | | | | |
| VITORIA | | | | | | | | | | | |
| BIZKAIA | | | | | | | | | | | |
| BILBAO | | | | | | | | | | | |
| GIPUZKOA | | | | | | | | | | | |
| DONOSTIA | | | | | | | | | | | |
| CAPV | | | | | | | | | | | |

Era berean, [Irekia]() **atarian inprimaki bat bidali eta autohautagaitzak sustatzeko** aukera ahalbidetu zen (halaxe egin dute beste partaide batzuek OGPren tokiko sarean).



## 2. FASEA - INTERESA ADIERAZTEA



Talde sustatzaileak egindako parte hartzeko gonbidapenak eta Irekia atariaren bidez izena emateko aukera kontuan hartuta, foro erregularra eratzeko prozesuan, eta, beraz, Euskadirako Gobernu Irekiaren Ekintza Plana garatzeko prozesuan **parte hartzeko 36 interes-adierazpen jaso ziren**.

| FORO ERREGULARRA ERATZEKO PROZESUAN PARTE HARTZEKO GONBIDATU DIREN PERTSONA INTERESDUNAK | | | |
|---|---|---|---|
| IZENA ETA ABIZENAK | ERAKUNDEA | IKUSPEGIA | NORK PROPOSATUTA |
| Aitzol Batiz | KULTIBA | ADITUA | TALDE SUSTATZAILEA |
| Alberto Ortiz de Zárate | CONSULTOR | ADITUA | TALDE SUSTATZAILEA |
| Ana Molina | ASOCIACIÓN MESTIZA | MIGRAZIOA | TALDE SUSTATZAILEA |
| Ana Navarri Jaumet | AGADELPRISE | HERRITAR ANTOLATUAK | IREKIA |
| Anabella Barroso | ALDEE | HERRITAR ANTOLATUAK | TALDE SUSTATZAILEA |
| Antonio Campos y Eusebio | HELDUAK ADI | ADINEKOAK | TALDE SUSTATZAILEA |
| Antxon Gallego | IRITZIAK BATUZ | ADITUA | TALDE SUSTATZAILEA |
| Arantza Otaolea | CONSEJO DE LA MUJER | GENEROA | TALDE SUSTATZAILEA |
| Aurora Hermosilla | COORDINADORA ONGD EUSKADI | HERRITAR ANTOLATUAK | TALDE SUSTATZAILEA |
| Claudia Bohórquez | GAMAKER | HERRITAR ANTOLATUAK | TALDE SUSTATZAILEA |
| Eneko Agirre | OSOIGO | ADITUA | TALDE SUSTATZAILEA |
| Eva Silván | SAVE THE CHILDREN | GAZTEAK | TALDE SUSTATZAILEA |
| Francisco Jesús Aloa | GAMAKER | HERRITAR ANTOLATUAK | TALDE SUSTATZAILEA |
| Ivan del Caz | BIKONSULTING | ADITUA | TALDE SUSTATZAILEA |
| Javier Goikoetxea | BIKONSULTING | ADITUA | TALDE SUSTATZAILEA |
| Joxe Agustín Arrieta | AGIJUPENS | ADINEKOAK | TALDE SUSTATZAILEA |
| Julio Roca | ZUZENAK | ANIZTASUN FUNTZIONALA | TALDE SUSTATZAILEA |
| Kristina Apiñaniz | CLUSTER ECONOMÍA CIRCULAR EUSKADI | PUBLIKOA - PRIBATUA | TALDE SUSTATZAILEA |
| Lucía Sarabia | IRSE INCLUSIÓN SOCIAL | HERRITAR ANTOLATUAK | TALDE SUSTATZAILEA |
| Maialen Olabe | EGK | GAZTEAK | TALDE SUSTATZAILEA |
| Maria José Anitua | ASOC. DERECHO COLABORATIVO EUSKADI | HERRITAR ANTOLATUAK | TALDE SUSTATZAILEA |
| María José Cano | FEDEAFES | HERRITAR ANTOLATUAK | TALDE SUSTATZAILEA |
| Mikel Barturen | SAREEN SAREA | HERRITAR ANTOLATUAK | IREKIA |
| Mikel Cabello | GLOBERNANCE | ADITUA | TALDE SUSTATZAILEA |
| Miren Fernández de Landa | CONCEJOS DEL MUNICIPIO DE GASTEIZ | LANDA - HIRIA | TALDE SUSTATZAILEA |
| Miren Gutierrez | UNIVERSIDAD DE DEUSTO | ADITUA | TALDE SUSTATZAILEA |
| Nuria Bustamante | | HERRITAR EZ-ANTOLATUAK | IREKIA |
| Pablo Moratalla | EHLABE | ANIZTASUN FUNTZIONALA | TALDE SUSTATZAILEA |
| Pablo Rey | | HERRITAR ANTOLATUAK | TALDE SUSTATZAILEA |
| Ramón Ibeas | CÁRITAS VITORIA | HERRITAR ANTOLATUAK | TALDE SUSTATZAILEA |
| Ricardo Antón | COLABORABORA | ADITUA | IREKIA |
| Roberto Gómez de la Iglesia | C2 + I | ADITUA | TALDE SUSTATZAILEA |
| Roberto San Salvador | UNIVERSIDAD DE DEUSTO | ADITUA | TALDE SUSTATZAILEA |
| Susana Sucunza | ASOC. DERECHO COLABORATIVO EUSKADI | HERRITAR ANTOLATUAK | TALDE SUSTATZAILEA |
| Txema Franco | LANTEGI BATUAK | ANIZTASUN FUNTZIONALA | TALDE SUSTATZAILEA |
| Txema Odriozola | FEDERPEN | ADINEKOAK | TALDE SUSTATZAILEA |

Pertsona horiei fitxa bat betetzeko eskatu zitzaien, eta, bertan, honako galdera hauek erantzun behar zituzten: *Zergatik sartu nahi duzu FORO ERREGULARREAN? Zure ezagutzetan, eskumenetan eta esperientzietan oinarrituta, zein ekarpen egin zenezake? Zein interes dauzkazu?*

## 3. FASEA - PROZESUA ZEHAZTEA



Interesdunei bilera batera (2018ko maiatzaren 17an, Lehendakaritzan) dei egin zitzaien. Aktan jasotakoaren arabera, hainbat aukera baloratu ziren, eta FORO ERREGULARREAN parte hartuko duten 7 pertsonak / erakundeak zehazteko aukerarik egingarriena honako prozesu hau zela erabaki zen:

- Foro erregularrean parte hartzea zer den zehatzago azaltzen duen deskribapena eta akta interesdunei bidali ondoren, autohautagaitzen prozesua ireki zen, pertsona / erakunde bakoitzak foroan parte hartzeko duen prestutasuna berresteko – *azken eguna, maiatzaren 21a, astelehena; posta elektroniko bidez burutua*
- Informazio horrekin (foro erregularraren parte izateko nahia berresten duten pertsonak / erakundeak) eta kontuan hartuta OGPk eskatzen dituen aniztasun-estandarrak, Innobasquek foro erregularraren osaerari buruzko proposamen tekniko eta arrazoitua egin zuen, lehen fase honetan parte hartu zutenak edo interesa adierazi zutenak (pertsonak/erakundeak) berresteko – *azken eguna maiatzaren 22a, asteartea; posta elektroniko bidez burutua*
- Ekintza Plana egiteko prozesua haste aldea foro erregularra ahalik eta arinen deitu behar zenez, proposamen hori BAIEZKOA edo EZEZKOA emanda berretsi behar zen. Hala, erantzunik ezean, hura positiboa zela ulertuko zen – *azken eguna maiatzaren 23a, asteartea; posta elektroniko bidez edo telefonoz burutua*
- Partaideei berrespen-prozesuaren emaitza jakinarazi zitzaien. Era berean, partaidetza berretsitakoan, ahalik eta lasterren deitu zen foro erregularra, gizarte zibilak partaidetza ezarri zuenean hura eratzeko – *azken eguna maiatzaren 24a, osteguna*

## 4. FASEA - PROZESUA GARATZEA



### *AURKEZTUTAKO AUTOHAUTAGAITZAK*

Maiatzaren 22an, Innobasquen jasotako informazioa, prozeduraren arabera, honako hau izan zen:

| PERTSONA | ERAKUNDEA | INTERESA | PROPOSATZEN DU |
|---|---|---|---|
| Aitzol Batiz | KULTIBA | BAI | |
| Alberto Ortiz de Zárate | CONSULTOR | BAI | |
| Ana Molina | ASOCIACIÓN MESTIZA | BAI | |
| Ana Navarri Jaumet | AGADELPRISE | | |
| Anabella Barroso | ALDEE | | |
| Antonio Campos y Eusebio | HELDUAK ADI | BAI | |
| Antxon Gallego | IRITZIAK BATUZ | BAI | |
| Aurora Hermosilla | COORDINADORA ONGD EUSKADI | EZ | Sareen Sarea |
| Claudia Bohórquez | GAMAKER | | |
| Cristina Apiñaniz | CLUSTER ECONOMÍA CIRCULAR EUSKADI | | |
| Eneko Agirre | OSOIGO | BAI | |
| Eva Silván | SAVE THE CHILDREN | | |
| Francisco Jesús Aloa | GAMAKER | | |
| Ivan del Caz | BIKONSULTING | BAI | |
| Javier Goikoetxea | BIKONSULTING | | |
| Joxe Agustín Arrieta | AGIJUPENS | | |
| Julio Roca | ZUZENAK | | |
| Lucía Sarabia | IRSE INCLUSIÓN SOCIAL | | |
| Maialen Olabe | EGK | BAI | |
| María Aranzazu Otaolea | CONSEJO DE LA MUJER | BAI | |
| Maria José Anitua | ASOC. DERECHO COLABORATIVO EUSKADI | EZ | Más en grupo por compromisos |
| María José Cano | FEDEAFES | EZ | Sareen Sarea |
| Mikel Barturen | SAREEN SAREA | BAI | |
| Mikel Cabello | GLOBERNANCE | | |
| Miren Fernández de Landa | CONCEJOS DEL MUNICIPIO DE GASTEIZ | BAI | |
| Miren Gutierrez | UNIV. DEUSTO | BAI | |
| Nuria Bustamante | | | |
| Pablo Moratalla | EHLABE | EZ | Sareen Sarea |
| Pablo Rey | | | |
| Ramón Ibeas | CÁRITAS VITORIA | | |
| Ricardo Antón | COLABORABORA | | |
| Roberto Gómez de la Iglesia | C2 + I | | |
| Roberto San Salvador | UNIV. DEUSTO | BAI | ningún problema en ceder |
| Susana Sucunza | ASOC. DERECHO COLABORATIVO EUSKADI | EZ | Más en grupo por compromisos |
| Txema Franco | LANTEGI BATUAK | EZ | Sareen Sarea |
| Txema Odriozola | FEDERPEN | | |

**Laburpena:** 13 interes-adierazpen, 6 negatibo (planaren beste talde / fase batean ekarpen gehiago egin dezaketen erakundeak eta lagapenak barne), eta 17 pertsonak ez zuten lagapenik proposatu beren hautagaitzan, nahiz eta prozesuan parte hartzeko interesa duten oraindik ere.

Ondorioz, autohautagaitzak honako hauek izan ziren (guztira, 13):

| PERTSONA | ERAKUNDEA |
|---|---|
| Aitzol Batiz | KULTIBA |
| Alberto Ortiz de Zárate | CONSULTOR |
| Ana Molina | ASOCIACIÓN MESTIZA |
| Antonio Campos | HELDUAK ADI |
| Antxon Gallego | IRITZIAK BATUZ |
| Eneko Agirre | OSOIGO |
| Ivan del Caz | BIKONSULTING |
| Maialen Olabe | EGK |
| María Aranzazu Otaolea | CONSEJO DE LA MUJER |
| Mikel Barturen | SAREEN SAREA |
| Miren Fernández de Landa | CONCEJOS DEL MUNICIPIO DE GASTEIZ |
| Miren Gutierrez | UNIV. DEUSTO |
| Roberto San Salvador | UNIV. DEUSTO |

## *PROPOSAMEN TEKNIKOA*

Autohautagaitza horiek abiapuntutzat hartuta, eta erabaki zen gisan, proposamen tekniko bat egin zen, gizarte zibilak foro erregularra eratu dezan (7 pertsona / erakunde), **jarraian zehaztuko diren irizpideen arabera**.

- OGPk, bere eskuliburuetan, foro erregularrean honako hauek sartu behar direla jasotzen du:
    - Gobernu-planak diseinatzean kontuan hartu ohi ez diren ikuspegiak / sentsibilitateak eskain ditzaketen pertsonak / erakundeak
    - Askotariko tamaina eta motatako erakundeak
    - Herritarren ikuspegia, adituen ikuspegiarekin osatuta
    - Plana diseinatu eta ezartzeko orduan eragina duten aniztasun-irizpideak: generoa, jatorria, adina, hiria-landa...
- Era berean, Innobasque erakundeari beharrezkoa iruditu zitzaion proposamen horretan honako hauek sartzea:
    - Hiru lurralde historikoetako erakundeen / pertsonen presentzia
    - Parekidetasunaren irizpidea, hau da, emakumeen eta gizonen partaidetza berdina
    - Gizarte zibileko ahalik eta kolektibo eta sare gehienenetara iristeko partaidetzak

Irizpide horiek kontuan hartuta, pertsona interesdunek berretsi beharreko proposamen teknikoa honako 7 pertsona / erakunde hauek eratutakoa izan zen:

| PERTSONA | ERAKUNDEA |
|---|---|
| Alberto Ortiz de Zárate | CONSULTOR |
| Ana Molina | ASOCIACIÓN MESTIZA |
| Eneko Agirre | OSOIGO |
| Maialen Olabe | EGK |
| María Aranzazu Otaolea | CONCEJO DE LA MUJER |
| Mikel Barturen | SAREEN SAREA |
| Miren Fernández de Landa | CONSEJOS DEL MUNICIPIO DE GASTEIZ |

Proposamen horrekin foro erregularrean sartu ziren:

- Herritarren ikuspegitik gobernu irekiaren gaineko adituen ikuspegi globala eskaintzen duten pertsonak
- Gizarte zibil antolatuko sare eta koordinatzaileak eta elkarte txikiak
- Adina, genero-ikuspegia, parte hartzeko oztopoak dituzten kolektiboak edo ikuspegi migratzailea bezalako sentikortasunak
- Lurraldetasunaren irizpidea (hiru lurralde historikoetako pertsonen /erakundeen presentzia, landakoak eta herrikoak barne) eta parekidetasunaren irizpidea
- Gobernu-planak diseinatzean kontuan hartu ohi ez diren ikuspegiak / sentsibilitateak eskain ditzaketen pertsonak / erakundeak

Hurrengo orrian 7 pertsona horiek bete zituzten fitxak erantsi dira.

| Izena | Erakundea | ZERGATIK SARTU NAHI DUZU FORO ERREGULARREAN? | ZURE EZAGUTZETAN, ESKUMENETAN ETA ESPERIENTZIETAN OINARRITUTA, ZEIN EKARPEN EGIN ZENEZAKE? | ZEIN INTERES DAUZKAZU? |
|---|---|---|---|---|
| Alberto Ortiz de Zárate | Aholkulari independentea (Alorza.net), Bilbao Data Lab-eko eta ITCIPeko (Administrazio Publikoan Ezagutza Helarazteko Institutuko) kidea | Euskal Autonomia Erkidegoan gobernantza onerako lankidetzan aritzeko konpromisoa daukat, ongizate-maila altuagoak eta gizarte erantzuleagoa lor dadin. | Arlo publikoan: - 15 urte euskal funtzio publikoan - 3'5 urte herritarrei arreta emateko zuzendariaren lanpostuan Profesional gisa - Gobernu irekiko proiektuak zuzendu ditut administrazioaren maila guztietan. - Nazioarteko esperientzia Munduko Bankuan - Irakaslea, hizlaria eta egilea gai hauetan - Espainiako OGPren Mekanismo Independentearekin harremana Herritar gisa: - Gaiaren gaineko aktibismoa - Hainbat foro digitaletan inplikatua. | Gobernu irekiaren gaineko aholkularia naizenez, inolako loturarik gabe parte hartu nahi dut foroan, lizitazioetara aurkeztu edo kontratazioetan parte hartzean. |
| Ana Molina | Mestiza elkartea | Gure elkartearen ustez, ekimen honek etorkizunera begiratzen du, gizarte eta jaurlaritza arduratsuagoa sortzeko, foro erregularrean parte hartzeko hautagaitza horrekin lortu nahi diren eta aurkeztu diren ekimen guztietan oinarrituta. | 2008an Donostian sortutako elkartea gara. Gure helburua artean, gizartean eta kulturan oinarritutako proiektuak sustatzea eta garatzea da, gure inguruko kultura-aniztasuna, ingurumena eta kultura bultzatu ahala. | Euskadiko kultura-aniztasuna (immigrazioa), kultura eta haurtzaroa (kultura-mailan) islatzea, horixe baita etorkizunerako inbertsiorik onena. |
| Eneko Agirre | Osoigo | Osoigo.com-en partaidetza-prozesuetan herritarren partaidetza ireki eta hobetzeko egiten dugu lan, egunero. Horrekin lotuta, nire ustez, foro erregularra aukera ezin hobea da Eusko Jaurlaritzako gobernu irekia zabaltzeko etorkizuneko politiketan funtsezko agente bat sor dadin, eta ekintza-plana prestatu eta ezarritako helburu eta konpromisoak betetzeko orduan parte hartzea gustatuko litzaidake. | Komunikazio publikoko tresnetan herritarren partaidetzarako plataforma erreferentea da Osoigo.com. Espainian, Argentinan eta Mexikon 1.000 politikari eta 200.000 herritar baino gehiagok parte hartzen dute bertan. Horrenbestez, bertako zuzendaria naizenez, aditua naiz erkidegoak sortzeko, herritarrekiko komunikazio-zerbitzuak ezartzeko eta herritar eta erakundeen arteko loturak finkatzeko tresnak garatzen. Halaber, tresna horiek foroarentzat aberasgarriak izan daitezkeela uste dut. Badakit nola egiten den lan erakundeetan eta gizarte zibil antolatuan, eta bitarteko ikuspegia eskain dezaket zehaztutako erronketan. | |
| Maialen Olabe | Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko presidentea | GAZTEEN IKUSPEGIA ESKAINTZEA | | |
| Maria Aranzazu Otaolea | BILBOKO EMAKUMEEN KONTSEILUA | Foroetan parte hartzeko gonbidapenak onartu egin behar direlako, emakumeek eta genero-ikuspegiak ikusgarritasun handiagoa edukitzea nahi badugu. | Hainbat lantaldetan parte hartu dugu, Bilboko Udalak (plan orokorra, balioen gutuna, berdintasunaren ordenantza... ), Emakundek (berdintasun-planak eta Bizkaiko Aholkularitza Batzordea), eta Bizkaiko Emakumezko Enpresari eta Zuzendarien Elkarteak egindako ekimenetan. Zuzenbideko lizentziaduna. Aldundiko funtzionarioa, administrazio hurbilagoa ezar dadin parte hartzen duena. 23 urte erakundean eta giza baliabideetan. | Partaidetza parekidea, genero-ikuspegia, ikuspegi holistikoa, eta gizarte parekideagoa eta irisgarriagoa lortzeko eta aldaketan laguntzeko ilusioa. |
| Mikel Barturen | SAREEN SAREA | Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko sare eta erakundeak batzen dituen sarea da Sareen Sarea, hau da, bertan sartzen da gizarte zibil antolatuaren zati esanguratsu bat. Elkarrizketa Zibilaren Mahaitik elkarrizketa zibila sustatzen ari gara, horixe baita administrazio publikoaren eta Euskadiko hirugarren sektore sozialaren artean lankidetzan eta elkarrizketan aritzeko organo gorena. Gobernuarekin elkarrizketa ezartzen da, zeharka. Erakundearteko lankidetza eta elkarrizketarako foroetan ere parte hartzen dugu. Ezarri nahi den bi urteko planak bost konpromiso jasotzen ditu, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialarekin lotuta daudenak. | Partaidetzaren Liburu Zuriaren prozesuan parte hartu dugu. - 2020ko Gobernantza eta Berrikuntza Plan Estrategikoaren aurkezpenera bertaratu ginen. - Eta, garrantzitsuena izan daitekeena, elkarrizketa zibilaren praktikan aritu gara, erakunde publikoen eta gizarte zibil antolatuaren arteko lankidetza-espazio gisa. Partaidetza demokratikoaren eta gobernantzaren antzeko esperientzia praktikoa dugu. | |
| Miren Fernandez da Landa | GASTEIZKO KONTZEJU ELKARTEA. "HIJOSDALGO DE LA JUNTA DE ELORRIAGA" | Kontzejuak zer diren eta nola antolatzen diren azaltzeko. | 10 urte baino gehiagoz izatea ADOVIko burua. | |

***BERRESTEKO PROZESUA***

Maiatzaren 23an, Innobasquen jasotako informazioa, berrespen-prozeduraren arabera, honako hau izan zen:

| PERTSONA | ERAKUNDEA | BERRESPENA |
|---|---|---|
| Aitzol Batiz | KULTIBA | BAI |
| Alberto Ortiz de Zárate | CONSULTOR | BAI |
| Ana Molina | ASOCIACIÓN MESTIZA | BAI |
| Anabella Barroso | ALDEE | BAI |
| Antonio Campos y Eusebio | HELDUAK ADI | |
| Antxon Gallego | IRITZIAK BATUZ | BAI |
| Aurora Hermosilla | COORDINADORA ONGD EUSKADI | |
| Claudia Bohórquez | GAMAKER | BAI |
| Cristina Apiñaniz | CLUSTER ECONOMÍA CIRCULAR EUSKADI | |
| Eneko Agirre | OSOIGO | BAI |
| Eva Silván | SAVE THE CHILDREN | |
| Francisco Jesús Aloa | GAMAKER | |
| Ivan del Caz | BIKONSULTING | |
| Javier Goikoetxea | BIKONSULTING | |
| Joxe Agustín Arrieta | LA SALLE BEASAIN | |
| Julio Roca | ZUZENAK | |
| Lucía Sarabia | IRSE INCLUSIÓN SOCIAL | BAI |
| Maialen Olabe | EGK | BAI |
| María Aranzazu Otaolea | CONSEJO DE LA MUJER | BAI |
| Maria José Anitua | ASOC. DERECHO COLABORATIVO EUSKADI | BAI |
| María José Cano | FEDEAFES | BAI |
| Mikel Barturen | SAREEN SAREA | BAI |
| Mikel Cabello | GLOBERNANCE | |
| Miren Fernández de Landa | CONCEJOS DEL MUNICIPIO DE GASTEIZ | |
| Miren Gutierrez | UNIV. DEUSTO | BAI |
| Nuria Bustamante | | |
| Pablo Moratalla | EHLABE | BAI |
| Pablo Rey | | |
| Ramón Ibeas | CÁRITAS VITORIA | |
| Ricardo Antón | COLABORABORA | BAI |
| Roberto Gómez de la Iglesia | C2 + I | |
| Roberto San Salvador | UNIV. DEUSTO | BAI |
| Susana Sucunza | ASOC. DERECHO COLABORATIVO EUSKADI | BAI |
| Txema Franco | LANTEGI BATUAK | BAI |
| Txema Odriozola | FEDERPEN | |

**Laburpena:** 19 pertsonak berretsi dute proposamena; 16 pertsonak ez dute jakinarazi onartzen ala baztertzen duten. Ondorioz, proposamena, adostutako prozeduraren arabera, **onartu egin da, kontrako botorik gabe.**

## 4. GIZARTE ZIBILAREN OSAERA FORO ERREGULARREAN

2018ko maiatzaren 24an **zehaztu zen zein 8 pertsona / erakundek parte hartuko zuten foro erregularrean, gizarte zibila ordezkatzeko:**

| PERTSONA | ERAKUNDEA | HAUTAKETA-PROZESUA |
|---|---|---|
| Alberto Ortiz de Zárate | AHOLKULARIA | Autohautagaitza + Proposamen berretsia |
| Ana Molina | MESTIZA ELKARTEA | Autohautagaitza + Proposamen berretsia |
| Eneko Agirre | OSOIGO | Autohautagaitza + Proposamen berretsia |
| Gotzon Bernaola | INNOBASQUE | Taldeko Sustatzaileko kidea |
| Maialen Olabe | EGK | Autohautagaitza + Proposamen berretsia |
| María Aranzazu Otaolea | EMAKUMEEN KONTSEILUA | Autohautagaitza + Proposamen berretsia |
| Mikel Barturen | SAREEN SAREA | Autohautagaitza + Proposamen berretsia |
| Miren Fernández de Landa | GASTEIZKO KONTZEJUAK | Autohautagaitza + Proposamen berretsia |

Prozesua itxi dela jakinarazi ondoren, parte hartzen jarraitzeko (beste fase batzuetan, foro irekian, konpromisoen araberako taldeetan eta abar) interes-adierazpenak kontuan hartuko direla zin egin da. Horretarako, ideiak hedatzeko eta elkarrizketarako (birtuala nahiz aurrez aurrekoa) bideak ezarriko dira.

## 1. ERANSKINA – TALDE SUSTATZAILEAK PROPOSATUTAKO PERTSONEN / ERAKUNDEEN ZERRENDA

| | TALDE SUSTATZAILEAK PROPOSATUTA FORO ERREGULARRA ERATZEKO PROZESUAN PARTE HARTZEKO GONBIDAPENA JASO DUTEN ERAKUNDEEN ETA PERTSONEN ZERRENDA | | |
|---|---|---|---|
| | PERTSONA / ERAKUNDEA | IKUSPEGIA | PROPOSAMENAREN EGILEA |
| 1 | ADELA EH | HERRITAR ANTOLATUAK | EUSKO JAURLARITZA |
| 2 | Datuak Babesteko Euskal Bulegoa | PUBLIKOA/PRIBATUA | EUSKO JAURLARITZA |
| 3 | Aingeru Ezkerra - Memoria Historikoaren Kontseilua. Genozidioaren Biktimen Elkartea | HERRITAR ANTOLATUAK | DONOSTIAKO UDALA |
| 4 | Aitzol Batiz - Kultiba | ADITUA | BFA |
| 5 | Alberto Ortiz de Zarate - Aholkularia | ADITUA | BFA |
| 6 | ALDEE | HERRITAR ANTOLATUAK | EUSKO JAURLARITZA |
| 7 | Alfonso Unceta - Sinnergiak | ADITUA | BILBOKO UDALA + INNOBASQUE |
| 8 | Ana Molina - Mestiza elkartea | MIGRAZIOA | INNOBASQUE |
| 9 | Antxon Gallego - Ibatuz | ADITUA | BFA + GFA |
| 10 | Arantza Acha - Unesco Etxea | PUBLIKOA/PRIBATUA | BILBOKO UDALA |
| 11 | Arantza Campos Rubio - Berdintasun Kontseilua. PLAZANDREOK | GENEROA | DONOSTIAKO UDALA |
| 12 | Arantza Otaolea - Berdintasunaren Emakumeen Kontseilua | GENEROA | BILBOKO UDALA |
| 13 | Araski – Arabako emakumezkoen saskibaloiko kluba | GAZTEAK | AFA |
| 14 | Landexako auzo-elkartea | AUZOTASUNA | GFA |
| 15 | ESLE elkartea | HERRITAR ANTOLATUAK | EUSKO JAURLARITZA |
| 16 | Gipuzkoako Pentsiodunen eta Erretirodunen Elkartea | ADINEKOAK | GFA |
| 17 | Asoleus C | MIGRAZIOA | GFA |
| 18 | Aurora Hermosilla - Euskadiko GKEen koordinatzailea | HERRITAR ANTOLATUAK | GASTEIZKO UDALA |
| 19 | Begoña Cabaleiro - Ingurumen Kontseilua EMAUS | HERRITAR ANTOLATUAK | DONOSTIAKO UDALA |
| 20 | Carlos Askunze - Reas Euskadi | HERRITAR ANTOLATUAK | EUSKO JAURLARITZA |
| 21 | Donostiako Emakumeen Etxea | GENEROA | EUSKO JAURLARITZA |
| 22 | CEAR Euskadi | MIGRAZIOA | EUSKO JAURLARITZA |
| 23 | Claudia Bohorquez - Gamakers Euskadi | ADITUA | GASTEIZKO UDALA |
| 24 | Euskadiko Informatikako Ingeniarien Elkargo Ofiziala | HERRITAR ANTOLATUAK | EUSKO JAURLARITZA |
| 25 | CONGDE | HERRITAR ANTOLATUAK | EUSKO JAURLARITZA |
| 26 | Mugikortasun Kontseilua. RACVN. - | HERRITAR ANTOLATUAK | DONOSTIAKO UDALA |
| 27 | Cristina Apiñaniz - Ekonomia zirkularra | ADITUA | GASTEIZKO UDALA |
| 28 | Danel Alberdi - Coach&Play | ADITUA | INNOBASQUE |
| 29 | DYA CENTRAL Bilbo | HERRITAR ANTOLATUAK | EUSKO JAURLARITZA |
| 30 | EAPN Euskadi | HERRITAR ANTOLATUAK | EUSKO JAURLARITZA |
| 31 | Edurne Aperribay - Emakumeen eta Hiriaren foroa | GENEROA | DONOSTIAKO UDALA |
| 32 | Egibide – Lanbide Heziketako Zentroa. | GAZTEAK | AFA |

| | PERTSONA / ERAKUNDEA | IKUSPEGIA | PROPOSAMENAREN EGILEA |
|---|---|---|---|
| 33 | EHLABE Laneratzea eta gizarteratzea | HERRITAR ANTOLATUAK | EUSKO JAURLARITZA |
| 34 | Elkartean | HERRITAR ANTOLATUAK | EUSKO JAURLARITZA |
| 35 | Elkartu | HERRITAR ANTOLATUAK | EUSKO JAURLARITZA |
| 36 | Enara Solabarria - Nagusilan | ADINEKOAK | GFA |
| 37 | Enba | LANDA/HIRIA | GFA |
| 38 | Eneko Agirre - Osoigo | ADITUA | EUSKO JAURLARITZA |
| 39 | Eragin | GENEROA | GFA |
| 40 | Euskadi Lagunkoia - Matia Fundazioa | PUBLIKOA/PRIBATUA | EUSKO JAURLARITZA |
| 41 | Euskal Gorrak | HERRITAR ANTOLATUAK | EUSKO JAURLARITZA |
| 42 | Eusko Federpen | HERRITAR ANTOLATUAK | EUSKO JAURLARITZA |
| 43 | Eva Silván - Save The Children Euskadi | HERRITAR ANTOLATUAK | GASTEIZKO UDALA |
| 44 | FEDEAFES | HERRITAR ANTOLATUAK | EUSKO JAURLARITZA |
| 45 | EGEF | HERRITAR ANTOLATUAK | EUSKO JAURLARITZA |
| 46 | Kirol Egokituaren Euskal Federazioa | HERRITAR ANTOLATUAK | EUSKO JAURLARITZA |
| 47 | FEKOOR | HERRITAR ANTOLATUAK | EUSKO JAURLARITZA |
| 48 | FEVAS | HERRITAR ANTOLATUAK | EUSKO JAURLARITZA |
| 49 | ONCE Fundazioa | HERRITAR ANTOLATUAK | EUSKO JAURLARITZA |
| 50 | Fundación Peñascal.Peñascal S Coop. | GAZTEAK | EUSKO JAURLARITZA |
| 51 | Gautena | ANIZTASUN FUNTZIONALA | GFA |
| 52 | Gorka Espiau - Agirre Lehendakaria Center (ALC) | ADITUA | EUSKO JAURLARITZA |
| 53 | Guadalupe Diaz - Nagusilan Bizkaia | ADINEKOAK | BILBOKO UDALA |
| 54 | Incyde kooperatiba-sozietatea | PUBLIKOA/PRIBATUA | EUSKO JAURLARITZA |
| 55 | Iñigo Eguren Vega - Kooperazio Kontseilua. CALCUTA ONDOAN | MIGRAZIOA | DONOSTIAKO UDALA |
| 56 | Ion Muñoa | HERRITAR EZ-ANTOLATUAK | GFA |
| 57 | Isidro Elezgarai - Unicef - Euskadiko Batzordea | HERRITAR ANTOLATUAK | BILBOKO UDALA + INNOBASQUE |
| 58 | Iván del Caz - Bikonsulting | ADITUA | GASTEIZKO UDALA |
| 59 | Javier Goikoetxea - Bikonsulting | ADITUA | GASTEIZKO UDALA |
| 60 | Javier Lobato | ADITUA | EUSKO JAURLARITZA |
| 61 | Javier Muñoz - FAAVV | AUZOTASUNA | BILBOKO UDALA + INNOBASQUE |
| 62 | Jone Martínez Palacios - UPV/EHU. Parte Hartuz | ADITUA | INNOBASQUE |
| 63 | Jorge Campanillas - Iurismática | ADITUA | EUSKO JAURLARITZA |
| 64 | Juan Carlos Sola - FEKOOR | ANIZTASUN FUNTZIONALA | BILBOKO UDALA |
| 65 | Julio Roca - Zuzenak | ANIZTASUN FUNTZIONALA | GASTEIZKO UDALA |
| 66 | Julio Usandizaga - Internet Euskadi elkartea | ADITUA | EUSKO JAURLARITZA |
| 67 | Koldo Aulestia - Gizarte Ekintzako Kontseilua.AFAGI | ADINEKOAK | DONOSTIAKO UDALA |

| | PERTSONA / ERAKUNDEA | IKUSPEGIA | PROPOSAMENAREN EGILEA |
|---|---|---|---|
| 68 | Koro Muro - Eusko Ikaskuntza | PUBLIKOA/PRIBATUA | DONOSTIAKO UDALA |
| 69 | Lorena Fernandez - Deustuko Unibertsitatea | ADITUA | INNOBASQUE |
| 70 | Lucía Sarabia - IRSE ARABA | ANIZTASUN FUNTZIONALA | GASTEIZKO UDALA |
| 71 | Mª Jose Anitua - Euskadiko Elkarlan Zuzenbideko Elkartea | HERRITAR ANTOLATUAK | EUSKO JAURLARITZA |
| 72 | Maialen Olabe - EGK Euskadiko Gazte Kontseilua | GAZTEAK | BFA + EUSKO JAURLARITZA |
| 73 | Maria Luisa Mendizabal eta J.A Campos - Helduak Adi | ADINEKOAK | INNOBASQUE |
| 74 | Mentxu Ramillo | GENEROA | INNOBASQUE |
| 75 | Metxa enpresa-bizkortzailea | PUBLIKOA/PRIBATUA | EUSKO JAURLARITZA |
| 76 | Miguel González - Ellacuría Fundazioa | MIGRAZIOA | BILBOKO UDALA |
| 77 | Mikel Cabello - Globernance | ADITUA | EUSKO JAURLARITZA |
| 78 | Mikel Oribe - Bizigay | HERRITAR ANTOLATUAK | BILBOKO UDALA |
| 79 | Miren Fernandez de Landa - Arabako Kontzeju Elkartea | LANDA/HIRIA | AFA |
| 80 | Miren Gutierrez - Deustuko Unibertsitatea | ADITUA | EUSKO JAURLARITZA |
| 81 | Orkestra, Lehiakortasunerako Euskal Institutua | PUBLIKOA/PRIBATUA | EUSKO JAURLARITZA |
| 82 | Osane Lizarralde - Mondragon Unibertsitatea | ADITUA | INNOBASQUE |
| 83 | Pablo Garaizar - Deustuko Unibertsitatea | ADITUA | INNOBASQUE |
| 84 | Pablo Rey Mazon - Bilbao Data Lab | HERRITAR ANTOLATUAK | BFA + EUSKO JAURLARITZA |
| 85 | Ramón Ibeas - Cáritas Gasteiz | HERRITAR ANTOLATUAK | GASTEIZKO UDALA |
| 86 | Arabako emakumeen sarea | LANDA/HIRIA | AFA |
| 87 | Roberto Gomez de la Iglesia - c2+i /Conexiones improbables | ADITUA | BFA |
| 88 | Roberto San Salvado - Deustuko Unibertsitatea | LANDA/HIRIA | INNOBASQUE |
| 89 | SALE, Software Askea Euskadin | PUBLIKOA/PRIBATUA | EUSKO JAURLARITZA |
| 90 | SARGI | HERRITAR ANTOLATUAK | GFA |
| 91 | SECOT Araba | ADINEKOAK | EUSKO JAURLARITZA |
| 92 | Soraia Chacón - Harresiak Apurtuz | MIGRAZIOA | INNOBASQUE |
| 93 | Txatxilipurdi | GAZTEAK | GFA |
| 94 | Txema Franco - Lantegi Batuak | ANIZTASUN FUNTZIONALA | EUSKO JAURLARITZA |
| 95 | Xabier Manero - Gazteen Kontseilua | GAZTEAK | BILBOKO UDALA |
| 96 | Zuriñe Gonzalez Agirre - Euskara Kontseilua. BAGERA | HERRITAR ANTOLATUAK | DONOSTIAKO UDALA |